

irichi eguidazula Jaunagandic bera nere biotz guztitic beti maitatzeco gracia, eta bera gueyago ez ofenditzeco asmo santuac ongui gordetzeco indarra, eta Errosarioaren debocio ta misterioacgatic irichi dezadala nic Bederatziurren onetan escatzen dedan mesedea, nere animaren salbaciuraco baldin bada. Amen,

Emen errezatzen dira iru *Ave Maria*, etc.

Bederatzigarren eguneraco

ORACIOA.

¡Oh ceruetaco Erreguiña! Zuc izan cenduan poz aundiagatic, beti iraungoduan gloria artara Jaungoicoac deitu cizunean, eta zure partieraco demboran Apostolu Santuac an arquitu ciranean eta gorputz ta anima Ceruan sartu ciñanean, guerutzen ciñalaric bertatic Aingueruen Erreguiñatzat, eta zure amparopean jarri nai duten gucien Patrona ta Bitartecotzat; irichi eguidazu, Ama chit maitea, zure birtuteac imitatzeco gracia,

Errosario santuaganaco debocioaren bi-
tarte; nere eriotzaco ordua datorrenean,
etsayen tentacioetatic gorderic, Aingue-
ru santuac nere lagun izan ditzadan. Eta
gaur Bederatziurren au acabatzen dedan
ezquero, indazu cere bendicio santua,
egun oyetan artutaco asmo santuetan
sendoturic gueratu nadin Errosario san-
tuaren misterioacgatic eta zure miseri-
cordiagatic ¡Oh Virgiña maitagarria!
gorde natzazu bicitza onetan, lagun za-
dazu eriotzaco orduan, eta irichi itzatzu
cere deboto gucientzat Ceruco atseguin
beticoac. Amen.

Emen errezatzen dira iru *Ave Maria*, etc.

ŷ. Regina Sacratissimi Rosarii, ora
pro nobis.

Ŕ. Ut digni efficiamur promissioni-
bus Christi.

Oremus.

Deus, cujus Unigenitus per vitam,
mortem, et resurrectionem suam nobis
salutis æternæ præmia comparavit; con-

cede quæsumus, ut hæc misteria Sanctissimo Rosario Beatæ Mariæ Virginis recolentes, imitemur quod continent, et quod promittunt assequamur. Per eundem Christum Dominum nostrum.

R̃y. Amen.

**San Martin Loinazcoaren Cofradiya-
co erregla edo izateco modua.**

LEMBICI: Erregutzen diegu biotz-biotzetic, eta escatzen maitetasunez eta caridadez, Cofradiaco guizon eta emacume danai, orain diradenai eta guero izango diradenai eguin ditzatela aleguin guciyan caridadezco obra asco, eta erregu dezatela maiz, eguiazco penitencia eguiñaz, eta Sacramentu Santuac errecibituaz; pobre eta biarrian daudenai limosnac eguiñaz, umezurtzai lagunduz, gaissoac bisitatu ta sendatuaz, preso diradenac liberatuaz, caridade iracequi santu aundiarequin eta gañera gure Fede Santua alabatuaz; Eleizac bisitatuaz, cergatic diraden oracioco echeac; escatuaz humiltasun aundiarequin Jaungoicoaren misericordia; Comunioco Sacramentu Santua gurtu edo beneratuaz, eta lagunduz ateratzen danian gure Jaun Ceruco gaissoac bisitatzera; illai biotz onez lurre emanaz, pobriac badira borondate gueyagorequin; Cofradiaco gastuarenzat diruba esqueñiaz; Martin Santuba jayo zan Amunabarco echean asita dagon eleiza ta capilla zucendu ta apaintzeco lagunduz; Anima bedeincatuacgatic oracio eta obra onac eguiñaz; bacoitzac dagoquion moduan cerbait emanaz Cofradiac ondo iraun dezan, eta za-

baldu dedin, confesatuaz eta comulgatuaz Cofradian sartzean, indulgenciac irabazteco; galdu ez ditecen gure faltaz aimbeste graci eta mesede, baicic oyen bitartez irichi dezagun gure pecatuen barcamena eta gure animen salbacioa, cergatic au da Aita Santuac nai zuana Bulda ori zabaltzean eta Cofradia edo Billera Santu au sortzeco aguintzean.

BIGARREN: Gañera aguintzen degu Cofradi ontan bere asieratic, eguin ditecela bi liburu, lenengoan jarriric cimendu-arri becela Aita Santuac eman duen Bulda edo litezarra Españaco Bulden Comisiodunen eta gure Apaizpicoaren bidez etorri dana eta Aita Santuaren Bulda orretan Cofradicoarentzat aguintzen diran graci, mesede ta barcamen gucien errencada *urtean bein iracurri dedin* eta jendeari aditzera eman Beasaingo Eleiza Nagusitic, Cofradiac duen festegun aurreco igande edo jaiegunean; eta ondoren, erregla edo aguimbide oen aguiria, bear becela aterea, Apezpicu Jaunac ontzat eman dituala señalatzen duen ordena edo aguintzarequin; eta emendic aurrera Billera edo Cofradi au alcartzan danean artzen diran neurri eta erabaquitzen diran gauza guztiaquin.—Eta lembicico liburu ontan jarri bearco dira orain ta beti, Cofradi ontan sartu diran edo sartzen diran guizon ta emacume guci gucien ice-nac, esanaz cein diran illtzen diranac, beti

gorde dedin Jaungoicoari contu ematen dioten guztien oroitza. Eta Bulda eta aguimbide jatorrizcoac gorde bear dira aldan conturic aundienarequin paperen zucen egon lecuric bada, anchen, edo bestela, Beasaingo Erretore Jaunaren mendean, ortaraco atereaz paper oyec guciac cer ta nolacoac diran aguiria, eta liburuan jarriric nola Erretore Jaunari ematen zaizcan paper oec guciac.—Eta bigarren liburuan ipiñi bear dira Cofradiaco contu eta berac dituen artzecoac; eta nola ipiñi bear diran guero esango da; Cofradiaco Mayordomoac nola contuac eman bear dituzten esaten danean.

IRUGARREN: Gañera aguintzen degu Cofradi ontan sartu litezqueala persona danac, edocein clase eta estaducoac, zazpi edo zortzi urte cumplitu ezquero; erri-barruan bici diradenac eta mendietan eta beste urreco edo urrutico errietan bici diradenac; modu ontan danentzaco izan ditecen berdiñac ondasun eta graci guztia, iñorc quendu gabe, seguituaz onla gure Jaunaren bidea, bada bere erruqui neurrigabeac guzti-guztiac artzen ditu gozaro bere mendean.

LAUGARREN: Gañera aguintzen degu Cofradi ontan sartu nai duten guztia, pagatu dezatela gastuetaraco, limosna au, beren sarreraco egunean: Ogueita bat urte cumplitu dituzten guizonac, iru errial ba-

coitzac.—Eta emacumeac, naiz izan zarra-
goac eta mutill eta nescach ogueita bat ur-
tera irichi gabeac, erreal terdi bacoitzac. (1)
Eta Cofradiaco contuetatic ezagutzen danean
limosna onequin eta beste modu ascoz bil-
tzen diradenaquin, ecin lezaqueala oñ onean
iraun Cofradiac, orduban Cofradiaco guztiac
bear dute eman beste limosna bat, bear dana
osatu arte; cer modutan, noiz eta nola eguin
bear dan beste limosna au, Cofradiaco bille-
rac erabaquico du, eta adierazoco dio Mayor-
domoari eta Cofradico bacoitzari nola eman
bear duten berari dagoquiotena; condicio oni
faltatzen dionac eman bearco du errial erdi
bat.

BOSTGARREN: Gañera aguintzen degu Bea-
saingo erri danac eta Cofradiaco guztiac, ez
egon ezquero macal, erritic campora edo bea-
rrean, joan bear dutela urteero Ascensiyoco
urrengo astelenean, procesiyoan errico Elei-
za-nagusitic San Martiñen ermitara, segui-
tuaz onla anciñaco oitura.—Eta demborac
ez badu laguntzen egun artan, bigaramo-
nean edo beste egun batian; dembora on-
tzian, izango da procesiyoa. Au erabaquico
dute Erretore eta Beneficiadu, Coadjutore edo
Eleiz-laguntzalle apaiz jaunac; gañera Alca-
teac eta Cofradico Mayordomoac. Eta ermita

(1) Danentzat iru errial izateco sarrera erabaqui-
zan, billera edo juntan Garagar-illaren 3-an 1895-an.

ontan cantatuco da Meza nagusia al dan solemnidade edo ots aunditasunarequin, eta gañera izango da sermoya; arrazoi gogorric gabe ecin gueldituco dira Cofradiacoac Meza eta Procesiyo ontara joan gabe, oitura beti dan becela; gañera procesiyoan eramango diran oroigarri, edo bandera ta gañeracoac norc eraman bear dituan erabaqui bearco dute Mayordomoac, cergatic abec diran buruac, eta Cofradiac guztia bear diote obeditu.

SEIGARREN: Gañera aguintzen degu Cofrade bat illtzen danian esan dedilla Meza bat, Cofradiaren contura. Meza au izango da cantatua *corpore præsente*. Nai dan egunian ecin esan bada Meza au, esango da bigaramonian. Meza cantatzen duan Apaizari emango zaizca lau errial, eta laguntzalleari erreal erdi bat. (1) Cofradiac ematen duan Meza au izango da entierro edo ill-funcio eta onraz gañera; bada abec eguiten ditu ildacoen familiac; bañan Cofradiacoac joan bear dute funciyo oyetara eta gañera errezatu bear dute caridadez Errosariyoaren irugarren parte bat, difuntuari lur santuba ematian, bere animaren intencioraco. Beasaindic urruti daudenac eta lan bearrecoetan ari diranac, ecin elizara

(1) Meza ematen duan Apaizari zortzi errial limosna eguiteco erabaqui zan juntan 1884-an; Evangelio eta Epistola cantatzalleari ematia on da errial biña.

joan badira, errezatu bear dute orobat Erro-sariyo santuaren irugarren parte ori. Entierro eta beste funciyo Cofradiacoen contura eguiten diranetan, erreco dan arguizai eta argui guztia, Cofradi onen beraren diruarequin eresia izan bearco du.

ZAZPIGARREN: Gañera aguintzen degu Cofradiaco guztia, ala eleiz guizonac, nola ez diranac, bear dutela junta eguin San Martinen festaco urrengo igandean edo Meza egunean. Onetaraco deituac izango dira pulpitutic demborarequin, eta ezquillac joco du juntan asitzeraco. Ecin eguin baliteque modu on-tan, eguingo da Igande edo beste meza egun batean (izan ezquero au San Martiñen festa aurrean) Eliza nagusico sacristi, edo bere atarian; baita ere izan liteque Errico echean, ondoena Erretore, Beneficiadu edo coadjutore, Alcate eta Mayordomoac nai duten le-cuan Junta onetara juan litezque, nai badute, Cofradiaco guizon eta emacumeac, egon ezquero ayec alde batetic eta abec bestetic; jaquiñaz emacumeac ecin itzeguin dezaque-tela Juntan eta vоторic ere ez daucatela.— Abetan egongo dira lembici Cofradiaco Mayordomo izan bear dutenac, u rte batean edo gueyagotan, ala bear bada. Baita ere izango da ceñec bear dizcaten contuac escatu lena-goco Mayordomoari. Gañera bearco dira arguitu eta bere puntuan ipiñi beste gauza

guztiac, Cofradiaco aunditasuneraco bear diranac: Cofradiaren cargu edo aguinteetaco eguiten diranac, ecin esango dute ezetz, edo nai ez dutela cargu edo aguintea; cergatic bestela izango diran lau errialen multarequin, (argui eta beste Cofradiaco gastuari laguntzeco.) Eta urte barruan eguiten diran gauza guztiac izan ditecela lenengo liburuan ipiniac, aguintzen duen becela bigarren erreglac.

ZORTZIGARREN: Gañera aguintzen degu Mayordomo beren eguimenari contu eman diotenac, bear dutela orobat contu eman, apuntatzeco bigarren liburuan, Mayordomo berriac eguinda illabete barruan, emanaz contu abec Mayordomo berriyari, abec bi guiltzaren azpian Cofradiaco liburu eta gañeraco gauzac gorde ditzaten. Oni faltatzen badiyote Mayordomo izandacoac, pagatu bearco dute lau errealeco multa bacoitzac, eta bi aldiz pagatzen badute legueaz conforme gogortasun aundiarequin castigatuac izango dira.

BEDERATZIGARREN: Gañera aguintzen degu eta encargu ematen diegu Mayordomoai, izan dezatela contu aundiya Cofradiaco guztiaquin, jaquiñaz beren artean ote dan ecinicusirie; errencuraric ta discordiaric: ala balitzaque, Mayordomoac dute obligacioa ipintzeco beren partetic al duten guztia ecin-


icusi, errencura eta discordi oyec quentzeco, eta paquea izateco bear dan becela Cofradia-
co guztian artean.—Ecin baluteque eguin
onetan nai duten guztia, emango diote con-
tu Erretore eta Alcate jaunari; abec ipintze-
co erremedioa, eta onla ere ecin baliteque,
deituco dute Cofradia guztia juntara gaiz-
toac eraman dezaten bear duten merecia.—
Onec ez du esan nai ocasio ascotan etzatela
Justicia ezagutuco aserretuta dauden parte
bacoitzari.

AMARGARREN: Gañera Mayordomo oyeri
ematen diegu encargu izan dezatela contu
jaquiten cembat limosna eguiten duten Co-
fradiacoac diranac eta ez diranac, testamen-
tuetan edo beste modu ascotan limosnac
utzitzen dituztenac, cergatic danari eguingo
diegun deya, izan dezaten Cofradi onen oroi-
tza, emanaz limosnac (bacoitzac al duana)
bere aunditasuneraco.—Eta orretaraco ber-
tatic ematen zayote Moyordomo aberi limos-
na eta beste Cofradiaco gauzac artu, eta co-
bratzeco, baimen osoa.

AMAICAGARREN: Gañera nola dan obediencia
aguindu guztiyac cumplitzeco bide suce-
na, escatzen diegu Cofrade guztiai, orain
diradenai eta guero izango diradenai, cum-
plitu ditzatela, contu aundiarequin erregla
abec guztia. Eta nola orain gauden Cofra-
diaren lenengo egunetan, ez degu legue gue-

yago ematen; onec ez du esan nai ez ditugula gueyago ipiñico demborarequin.—Eta cumplitu ditecen aguindu abec guztia, usuatuz gure aguintasunez, obligatzen ditugu Cofradiaco guztia legue abei cumplimentu ematera; bestela eramango dituzte lenago esandaco castiguac, eta Cofradiatic botia izango dira. cergatic ez dan justu ontasunac artzia legueari bear dan obediencia eman nai ez dionac, aguinduz legue abec, bacoitzac eguin dezala al duena Cofradiaren oneraco.—Eta legue abec izan dezaten bear dan baliyoa, humildade aundiarequin escatzen diogu Apezpicu jaunari bere Bicario general edo beste juez eta persona cargucoai eman deguiyotela beren baimena legue abei, onla obligatuaz Cofradiaco guztia, orain eta gueroacoac, ayec ondo cumplitzera.—Eta ontaraco ematen diegu podere osoa Juan Azcarateco eta Juan Amezquetacoari (Iruñeco Apezpicu echecho Tribunaleco Procuratza-lia) bacoitzari *insolidum* beren aurrian.—Ata Santuen Bulda eta beste bear diran paperaquin, escatu dezaten baimen ori.—Eta baimen ori izan ezquero, letu ditecen izcuntza erressean eta claruan, jai aundi batian, Meza nagusian, modu onetan denac jaquin dezaten, eta inore ecin esan dezan ez duela aditu, eta orregatic ez diyola bear dan cumplimentua eman legueari; au bera eguin

bear da juntetan eta comeni dan guztian, edocein toquitan ta modutan, bear izan ezquero. Au eguingo da Mayordomo, Erretore eta Alcate jaunac esaten dutenean, edo Cofradiacoac escatzen dutenean, comeniz an ezquero Cofradiaren aunditasuneraco.—Aguindu abec guciac izan dezaten bear dan balioa firmatzen degu Escribau eta testigoen aurrian, Beasaingo errian, Agorraren oguei ta bostian, milla eta seireungo irurogueita bostgarren urtean. Dira testigu: Antonio Zabala-coa, Martín Machaingo eta Ascensio Larrañagacoa, erri ontan bici diranac; eta jaun aberi ematen diotet fede, nic Escribau-bac; eta firmatu zuten cequienac, eta ez cequienagatic testigu batec.—On Juan Zubicoe-tacoac; On Esteban Aramacoac; Miguel Aba-riacoac, Pedro Loynazcoac; (testigua) Anto-nio Zabala-coac; nere aurrian—Martín Ota-mendicoac, eta ni Martín Otamendicoac, Erreguen Escribauac, eta Alzagaco erricoac, ematen det fede, Eguia dan siñalian.—Mar-tín Otamendicoac.



Utseguitechhuac

Orrica—Lerroan

Diyo

Esan bear du

9—	23 —	beguia	—	beguiac
24—	9 —	enetan	—	onetan
28—	25 —	Fr. Martin	—	Fr. Marcelo
31—	10 —	Luis Tomo	—	Luis, Tomé
45—	4 —	Beasainesium	—	Beasainensium
50—	7 —	bitartecotzat	—	bitartecotza

Uttar Pradesh

General Notes: This is a list of the districts of Uttar Pradesh.

- | | | | | | | | |
|---|---|-----------|---|----|---|--------------|---|
| 1 | — | Almora | — | 10 | — | Meerut | — |
| 2 | — | Bageshwar | — | 11 | — | Muzaffargarh | — |
| 3 | — | Dehra Dun | — | 12 | — | Nagarkot | — |
| 4 | — | Dun | — | 13 | — | Nainital | — |
| 5 | — | Haridwar | — | 14 | — | Parvati | — |
| 6 | — | Jaunpur | — | 15 | — | Rudrapur | — |
| 7 | — | Kanpur | — | 16 | — | Saharanpur | — |
| 8 | — | Lahore | — | 17 | — | Shamli | — |
| 9 | — | Mathura | — | 18 | — | Thane | — |



